



## **Bezeroen segmentua:**

Kotxe Klasikoak Etxean badakigu bezero guztiak ez direla berdinak, eta horregatik gure jarduera bezeroen segmentazio argi eta zehatz batean oinarritzen da. Gustuak, errenta-maila eta adina kontuan hartuta, bezero-talde desberdinak identifikatzen ditugu, eta bakoitzarentzat balio-proposamen egokitua eskaintzen dugu, esperientzia ahalik eta pertsonalizatuena izan dadin.

Lehen bezero-taldea errenta ertain-altua duten helduak dira, normalean 30 eta 55 urte bitartekoak. Talde honek esperientzia bereziak baloratzen ditu, dotorezia, kalitatea eta eskusibotasuna bilatuz. Gehienetan ezkontzak, enpresa-ekitaldiak edo ospakizun bereziak antolatzen dituzte. Haientzat balio-proposamena zerbitzu premium batean oinarritzen da: kotxe klasiko eskusiboak, txoferraren zerbitzua, puntualtasuna eta tratua profesionala. Prezioa ez da faktore nagusia talde honentzat; garrantzitsuena esperientzia ahaztezina eta kalitate handikoa izatea da.

Bigarren taldea adin gazteagoa duten bezeroak dira, 18 eta 30 urte bitartekoak, errenta ertainarekin. Talde honek esperientzia berriak eta bereziak bilatzen ditu, batez ere sare sozialetan partekatzeko modukoak. Gustuko dituzte kotxe klasikoak estetika eta nostalgia aldetik, baina aurrekontua mugatuagoa izaten da. Haientzat balio-proposamena prezio egokitueta oinarritzen da: museoko bisitak, argazki-saioak, esperientzia laburrak edo ekitaldi puntualetarako alokairuak. Esperientzia bisuala eta emozionala funtsezkoak dira talde honentzat.

Hirugarren bezero-taldea adin nagusiagoko motorzaleak dira, 55 urtetik gorakoak, askotan errenta egonkorrekin. Talde honek automobil klasikoekiko interes sakona du, eta balio handia ematen die historiari, mekanikari eta jatorrizkotasunari. Haientzat balio-proposamena esperientzia kultural eta hezitzailea da: bisita gidatuak, kotxe bakoitzaren historia xeheki azaltzea eta erakusketa lasaiak. Talde honek ez du presarik; kalitatea, ezagutza eta tratua dira funtsezkoak.

Laugarren segmentua enpresak eta profesionalak dira, errenta altuarekin eta helburu argiarekin: marka-irudia sendotzea. Adina ez da faktore nagusia talde honetan, baizik eta behar profesionalak. Haientzat balio-proposamena irudi korporatiboan oinarritzen da: kotxe klasikoak produktu-aurrezpenetan, publizitate-kanpainetan edo ekitaldi instituzionaletan erabiltzea. Talde honek zerbitzu fidagarria, puntualtasuna eta kalitate handiko irudia baloratzen ditu, prezio altuagoak onartuz.

Azkenik, zinema-ekoiztetxeak eta ikus-entzunezko sektorea berezko segmentu gisa hartzen ditugu. Talde honek kotxe klasikoak elementu artistiko eta narratibo gisa ikusten ditu, bereziki garai jakin bateko pelikula edo iragarkietarako. Balio-proposamena hemen benetakotasuna, dokumentazio historikoa eta



eszenarako egokitzapena da. Errenta-maila proiektuaren araberakoa izaten da, baina kalitate teknikoa eta estetikoa ezinbestekoak dira.

